

Gure enpresaren ereduak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa izango da hainbat erakunde eta elkarteen laguntza eta aliantza estrategikoak ezartzea. Gure zerbitzua espezializatu eta egokitua den arren, beste baliabide eta zerbitzuekin osatzeak gure laguntza-prozesuak eraginkorragoak eta integralagoak bihurtuko ditu. Horretarako, beste enpresa eta erakunderekin lankidetzak sustatzea funtsezkoa izango da.

Hizkuntza ikastaroak, lanbide-gaitasunak hobetzeko prestakuntza eta elkarriketarako laguntza eskaintzen duten zentroek gure erabiltzaileei trebakuntza egokia eskainiko diete. Dokumentazioa kudeatzen espezializatutako erakundeek, berriz, prozesuak arinago eta errazago egiteko aukera emango dute.

Bazkide teknologikoen ekarpena ere garrantzitsua izango da; hautagaien datuak kudeatzeko eta prestakuntza edo lana jarraitzeko software-soluzioak garatuko dituzte. Hizkuntza ikasteko eta elkarriketak praktikatzeko plataformek, gainera, gure erabiltzaileen garapen pertsonala eta profesionala bultzatzeko baliabideak eskainiko dituzte.

Etorkinak kontratatzeko prest dauden eta hainbat sektoretan lan-eskaintzak dituzten enpresak gure aliatu nagusiak izango dira. Aniztasun eta inklusioarekiko konpromisoa duten enpresek aukera-berdintasuna sustatu eta gure ikuspegia indartuko dute. Era berean, gizartean eta lan-merkatuan integrazio eraginkorra lortzeko, laguntza emozionala eta soziala eskaintzen duten erakundeekin lankidetzan arituko gara.

Aliantza horiek guztiak gure erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzen eta gizartean modu eraginkorrean integratzen lagunduko dute, eta, aldi berean, gure enpresaren helburuak betetzen lagunduko digute.

